

SOCIEDAD

Itziar Gonzalez-Dios eta Eneko Bidegain irabazle 'Txiokatu zure tesia' lehiaketan

Bigarren edizio honetan 46 ikertzailek hartu dute parte, aurrekoan baino dezente gutxiagok

EL DIARIO VASCO |

@diariovasco

26 noviembre 2014

13:43

UEUK kudeatzen duen Unibertsitatea.net atariak bigarren urtez antolatu duen 'Txiokatu zure tesia 6 mezutan' lehiaketak baditu irabazleak. Lehen saria Itziar Gonzalez-Dios-entzat izan da, egiten ari den euskarazko testuen sinplifikazio automatikoari buruzko tesia laburtzeagatik, eta bigarren saria Eneko Bidegain kazetari eta irakaslearentzat izan da 'Lehen Mundu Gerra Eskualduna astekarían' tesia koplatan azaltzeagatik. Antolatzaileek jarritako helburuak bete direla adierazi dute, ekimen honekin 46 ikertzaile euskaldun eta beraien lana ezagutzera eman baitira.

Iñaki Alegriak, UEUko Zuzendariak lehiaketaren ideia nondik nora sortu zen eta ekimenaren balorazioa egin du: «Unibertsitatea.net atariak antolatu du lehiaketa, ikertzaileei izen-abizenak jarri eta beraien lana ikusgarri egiteko. Unibertsitatea.net ataria azken urteetan gazte ikertzaileak ezagutzera ematen ari da, datorren urtean ikertzaile gazteekin egitasmo handi bat egiteko asmoa dugu, eta lehiaketa antolatzea modu ludikoan eta berritzailean helburu hau lortzeko bide interesgarria zela pentsatu genuen».

Iaz baino jende gutxiagok parte hartu badu ere, aurrekoan ere jarritako emaitzak oparoak izan direla azpimarratu du Iñaki Alegriak. 46 ikertzailek hartu dute parte, horietatik %70a berriak (iaz 86 ikertzailek parte hartu zuten). 23 emakume eta 23 gizon izan dira. Partehartzaileen %30a doktorea izan da, gehiengo beraz, doktoregaia. Ikertzaileak Cantabriako Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Grenobleko Unibertsitatea, Lancasterreko Unibertsitatea, Leedseko Unibertsitatea, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, Mondragon Unibertsitatea, Tennesseeko Unibertsitatea, UNED, UPNA/NUP eta UPV/EHUkoak izan dira.

Tesien jakintza esparrua zabala izan da. Besteak beste: Ekonomia, Kimika, Biologia, Hezkuntza, Literatura, Kazetaritza, Soziologia, Fisika, Informatika, Hizkuntzalaritza, Matematika, Kirola, Psikologia eta Elektronika.



eneko Bidegain eta Itziar Gonzalez-Dios. / DV



Tiene sentido

Hasta el más exigente se convence cuando le explicas el método Dentix.

www.dentix.com



Instala Gas Natural!

No lo dudes, nuestras soluciones integrales te ayudarán a tirar adelante tu negocio

www.gasnatural.com

DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900, Inscripción 1ª
C.I.F.: A-20004073 Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018. Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com

Copyright © Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.), y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.